

JOSE FELIX PASCUAL BIZKAIKO TUTORETZA INSTITUTUKO ZUZENDARIA**«Familiaburu ona izatea da Tutoretza Institutuaren lana»**

Atzo hasi ziren Bilboko Euskalduna jauregian *Tutoretza instituzionala: ezgaituaren babes* izenburuko jardunaldiak. Bizkaiko Tutoretza Institutuak antolatu ditu; eta Jose Felix Pascual Institutuko zuzendariak uste du koordinazioa hobetuko dela jardunaldiekin.

Asier Iturriagaetxebarria | BILBO

Gizarte alorrean lan egiten duten erakunde eta pertsona guztien arteko koordinazioa «ezinbestekoa» dela uste du Pascualek, eta arlo horretan hobetu beharra dagoela azpimarratu du.

■ **Orain urte eta erdi sortu zuten Aldundiak Bizkaiko Tutoretza Institutua. Zergatik sortu zen erakunde berri bat?**

1994. urtetik, epaitegiek ezgaitu deklaratzeko zituzten pertsona guztien ardura Aldundiaren esku geratzen zen, eta kasu honetan Gizartekintza diputatuaren ardurapean geratzen zen. Karguak nahikoa erantzukizun zeukala ikusita, diputatuari ardura hori kentzeko erabaki zen Tutoretza Institutua sortzea. Erakunde espezializatua da, epaitegiak ezgaitu deklaratzeko dituen pertsonen tutoretza egin eta adingabeen ondareak kudeatzeko.

■ **Zein da Institutuaren eguneroko lana?**

Legediak berak esaten du pertsona baten tutoretza hartzen duenaren eginkizuna dela familiaburu ona izatea, eta horixe da gure lana. Beraz, ezgaituaren bitartez hobetu dezaketen zerbitzu guztiak bere esku ipintzen ahalgintzen gara. Lehenengo, gizarte edo medikuntza zerbitzuak aztertzen ditugu, pertsona horri ahalik eta zerbitzu eta babes onena eman ahal izateko. Judizialki ezgaituak izateak, ez du esan nahi euren eginbeharrak eta eskubideak ez dituztenik. Bizitzan jazo daitezkeen hainbat arazoirengatik bakarrik daude pertsonak ari gara berba egiten, eta gure esku dagoen babesik handiena eman behar diegu. Gainera, ahal den neurrian pertsona horiek gizarteratzea da gure asmoa, nahiz eta zaila izan.

■ **Hasieran, 30 izan ziren zuten esku zeuden lagunak, baina orain ia 300 dira. Erakunde berria izanik, pentsatzekoa da etorkizunean kopuru hori handituko dela.**

Baliteke gaur egun Institutuaren erabilera txarra egitea. Ez gara bakarrik daudenentzako

MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS



BABESA

JARDUNALDIEN HELBURUA

«Judizialki ezgaituak diren pertsonen ahalik eta babesik handiena eskaini behar diegu»

«Gizarte zerbitzuen alorrean lan egiten dugunon arteko koordinazioa ezinbestekoa da»

Bizkaian dagoen elkarte bakarra. Horregatik, gizarte arloan Bizkaian lanean ari garen elkarte eta erakunde guztien koordinazioa beharrezkoa da, gure Institutua bakarrik daudenentzako azkeneko baliabidea izan ez dadin. Espezializatuta dagoen azken baliabidea gurea da, baina ez gara bakarrik.

■ **Koordinazio premia aipatu duzu. Horixe da jardunaldiekin landu gura duzun alor garrantzitsua, ezta?**

Gai honen inguruan lanean gabiltzan guztiok berba egin behar dugu. Familiaburu on batek hainbat arlo bete behar ditu: osasuna, hezkuntza, justizia... Jardunaldietan batuko gara Bizkaiko udaletako gizarte zerbitzuetako beharginak, gizarte alorrean lan egiten duten erakundeak, epailetzako kideak, Aldundikoak eta osasun zerbitzuetakoak. Guztien koordinazioa ezinbestekoa da, bakoitzak bere eskumenak dituelako. Adibidez, ni ezin naiz sartu justizia-

ko langile batek zer egin behar duen esatera.

■ **Non uste duzu kale egiten duela koordinazioak?**

Kontuan izan behar da erakunde berria gurea, eta oraindik gure lan eremua zehazten ari gara. Bizkaian ezagunak izatea gure gurea, pertsona ezgaituren bat agertzen denean, gure gure iritzia eman ahal izateko. Pertsona horrekin jarraitu behar den prozesua guztien artean zehaztuko gurea. Adibidez, epaitegiak joatea erabakiko balitz, epaitegiak pertsona hori ezgaitua dela esan dezaten, osasun eta gizarte txosten guztiekin joango gineteke; epaileen lana errazagoa eta hobea litzateke.

■ **Prozesu horretan guztian epaileen eta fiskalen lana oso garrantzitsua da. Beraiek ere informatuta eta kontzientziatuta egotea komeni da...**

Horixe da, hain zuzen, jardunaldien helburua. Arlo horretan zerbait esan edo erabakitze

ko langile batek zer egin behar duen esatera. Bakoitzak egiten duena jakingo dugu, eta azkenean, eskaintzen dugun zerbitzua ere hobetuko dugu.

■ **Nola baloratzen duzu epailetzaren lana?**

Orain arte ez dugu ate bakar bat ere itxita topatu. Bizkaiko epaitegiak dekanoei batzarrak egin ditugu, Abokatuen Bazkarekin, Fiskaltzarekin... Osakidetarekin ere hitzarmena sinatu dugu. Esan dudana moduan, guztien arteko koordinazioa da hemen garrantzitsua.

■ **Bizkaian bakarrik dago Tutoretza Institutua. Eredua zabaldu beharko litzateke?**

Azken errekurtoa izango den erakunde espezializatuen ereduak lekua daukela uste dut. Baina ahaztu gabe gizarte zerbitzuen alorrean lan egiten duten erakunde pribatuak hori daude. Gurea azken irtenbidea da; beste aukerarik ez dagoenean erabili behar da.

NAGUSI 2002

Gaur irekiko dute adinekoentzako aisialdi eta zerbitzu azoka Bilbon

Agentziak | BILBO

Gaur inauguratuko dute Bilboko Nazioarteko Erakustazokan Nagusi 2002 azoka. Adineko pertsonentzako aisialdi, zerbitzuak eta bestelako ekimenen bilketa lana egiten dute azoka horretan, eta Bilbon antolatzen duten seigarren aldia da. Iñaki Azkuna alkateak inauguratuko du gaur, eta urriaren 6ra bitartean izango dira ateak irekita.

Erakustazokan ikusgai dagoen guztia adinekoek beraien, senideei edota eurekin lan egiten duten profesionalen zuzenduta dago. 2.715 metro koadrotako azalera hartuko du erakustetako, eta aisialdiarekin, osasunarekin, zerbitzuekin, erakunde publikoekin edota komunikabideekin lotutako 60 enpresek parte hartuko dute bertan.

Jaurlaritza, Bizkaiko Aldundia, Bilboko Udala, BBK eta adinekoekin lan egiten duten hainbat erakunde dira antolatzaileak.

Eskaintza zabal

Antolatzaileek nabarmendu nahi izan dutenez, aurten eskaintza zabal eta berritua izango da erakustazokan, eta arlo oso ezberdinetako zerbitzuak eskainiko zaizkie adinekoek: bainuetxeak, kirola, kultura, laguntza teknikoak, optika, laguntza juridikoa, goi mailako ikus-entzunezko teknologia, informatika ikastaroak, Andaluzia edo Kubari buruzko turismo informazioa edota gidabaimenik eskatzen ez duten autoen eskaintza.

Baina guztia ez da izango kontsumoari begirako informazioa, eta Nagusiren antolatzaileek heziketa eta parte-hartzea indartu nahi izan dute seigarren ekitaldi honetan. Hala, hitzaldi egitarau zabal antolatu dute, taletarrak, dantzak, jokoak, orkestrak, lehiaketak, bingoa eta moda. Horien guztien helburua da adineko pertsonen ezagutzea nolako aukerak dituzten aisialdi, osasuna eta bizi kalitatea hobetzeko.